



## **Elkargokideei 2020ko irailaren 11rako deitu diren Ohiko eta Ezohiko Batzar Orokorretan bete beharreko neurriak.**

- Banaka sartu behar da, maskara jantzita eta edukiera bete arte.
- Elkargoko langileek pertsona bakoitzaren tenperatura kontrolatu beharko dute.
- Eskuak eta oinetakoak garbitu behar dira gelarekin eta produktu desinfektatzailearekin.
- Ekitaldi-aretoan sartzeko eta handik irteteko seinaleak errespetatu behar dira uneoro, baita Elkargoko langileek egindako oharrek ere.
- Behar bezala seinaleztatuta dauden eserlekuak bakarrik erabili ahal izango dira.
- Liburutegiko instalazioak Ohiko eta Ezohiko Batzarretarako behar diren zerbitzu osagarri guztietarako erabiliko dira.
- Metro eta erdiko segurtasun-tartea mantendu beharko dugu uneoro, eta beraz, eseri ondoren ezin izango dugu bertatik irten, horretarako eserleku-ilara bereko beste norbait mugiarazi behar bada.
- Esku hartu ahal izateko, mahaitik baimena eman arte itxaron beharko dugu. Eserita esku hartu beharko da, zutik edo tente jarri gabe.
- Komunak erabili ahal izango dira, baina erabilera bakoitzaren ondoren, garbiketa-enpresako langileek desinfektatu egingo dituzte. Horrela, bada, komunak okupatuta edo desinfekzio-prozesuan badaude, pertsonen artean metro eta erdiko distantzia utzita itxaron beharko dugu beti.
- Ohiko Batzarra amaitu ondoren, bertaratu guztiek Elkargoaren instalazioetatik irten beharko dute hura desinfektatzeko. Hori egin ondoren, Ezohiko Batzarrera joan behar dutenek hasiera-hasieratik bete beharko dituzte berriz arauak.